| LANDIETZARAKO HITZARMEN MARKOA ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUAREN ETA ESPAINIAKO HIZKUNTZALARITZA APLIKATUAREN ELKARTEAREN ARTEKOA | CONVENIO MARCO DE COLABORACIÓN ENTRE EL INSTITUTO VASCO ETXEPARE Y LA ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE LINGÜÍSTICA APLICADA |
|---|---|
| Donostian, 2013ko urriaren 28an | En Donostia-San Sebastián, a 28 de octubre de 2013 |
| BILDUTA | REUNIDOS |
| Alde batetik, Maria Aitzpea Goenaga Mendiola andrea, NAN 15.941.666-K, Etxepare Euskal Institutuaren zuzendaria. Kargua ekainaren 1eko 151/2010 Dekretuaren bidez jaso zuen (2010eko ekainaren 4ko EHAA, 105 zk,) eta Etxepare Euskal Institutua Sortzeko eta Arautzeko 3/2007 Legearen, apirilaren 20koaren 9. artikuaren arabera (EHAA 89 zkia, 2007ko maiatzak 10ekoa), Etxepare Euskal Institutuaren izenean eta ordez jarduten du. Etxepare Euskal Institutuak Prim Kalea 7, 20006 Donostia helbidean du egoitza eta V-20999827 IFZ zenbakia dauka. | De una parte, Dña. María Aitzpea Goenaga Mendiola, DNI: 15.941.666-K, en calidad de Directora del Instituto Vasco Etxepare, cargo para el que fue nombrada por Decreto 151/2010, de 1 de junio (BOPV nº 105, de 4 de junio de 2010) y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 3/2007, de 20 de abril, de Creación y Regulación del Intituto Vasco Etxepare (BOPV nº 89, de 10 de mayo de 2007), actúa en nombre y en representación de dicho Instituto que tiene su sede social en la calle Prim 7, 20006, Donostia-San Sebastián y CIF: V-20999827. |
| Bestetik, Ricardo Mairal Usón, NAN 18.021.524-Espainiako Hizkuntzalaritza Aplikatu Elkartearen buru den bezainbatean, AESLAko Bazkide Batzarrak horrela izendatuta 2011ko maiatzaren 5an, elkartearen izenean eta ordez jarduten du eta hitzarmenak sinatzeko ahalmenak ditu Bazkideen Batzarrak emandako boteren bidez 2011ko maiatzak 5ean. Hitzarmen honen ondorioetarako, elkarteak, Universitat Politécnica de Valencia, Hizkuntzalariza Saila, 4P eraikina, 3. solairua, E-46022 Valencia helbidea du eta G-30118087 IFZ zenbakia (aurrrantzean, AESLA). | Y, de otra, Dn. Ricardo Mairal Usón, DNI 18.021.524-N en calidad de Presidente de la Asociación Española de Lingüística Aplicada, cargo para el que fue nombrado por la Asamblea de Socios de AESLA el 5 de mayo de 2011, actúa en nombre y representación de dicha asociación y está facultado para celebrar convenios en virtud de los poderes otorgados por la Asamblea de Socios el 5 de mayo de 2011, con domicilio a estos del presente convenio en la Universitat Politécnica de Valencia, Departamento de Lingüística Aplicada, edificio 4P, 3ª planta de Valencia (E-46022) y CIF: g-30118087 (en adelante, AESLA). |

| | |
|---|---|
| Bi aldeek euren karguen arabera jarduten dira eta adierazten dute nahiko legezko ahalmena dutela dokumentu hau sinatzeko, eta horrekin bat, | Ambas partes, que actúan en razón de sus respectivos cargos, declaran poseer capacidad legal necesaria para formalizar el presente documento y, en su mérito, |
| ADIERAZTEN DUTE | EXPONEN |
| I. Etxepare Euskal Institutuz zuzenbide pribatuko erakunde publiko bat dela, Etxepare Euskal Institutuaren Osaerari eta Arautzeari buruzko 3/2007 Legearen babesean sortutakoa, berezko nortasun juridikoa duela, bere xedeak betetzeko jardute gaitasuna daukala, Eusko Jaurlaritzan Kultur alorrean eskuduna den Sailera atxikita dagoela. | I. Que el Instituto Vasco Etxepare es un ente público de derecho privado, creado al amparo de la Ley 3/2007, de 20 de abril, de Creación y Regulación del Instituto Vasco Etxepare, con personalidad jurídica propia y capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines, adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura. |
| II. Goian aipatu 3/2007 Legearen 3. atikuluarekin bat etorriz,Etxepare Euskal Institutuak helburu hauek ditu, besteen artean: munduan zehar euskararen irakaskuntza, ikasketa eta erabilera hedatzea; euskal kultura bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinnahi adierazpen, euskarri bide eta adierazmoldeetan, kanpoan ezagutarazten eta hedatzen laguntzea, bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatzea eta bermatzea; bere jarduerak hedatzen eta haien kalitatea hobetzen lagunduko duten behar adina neurri eta ekintza sustatzea, hala nola, euskal kulturari buruzko ikerketa sustatzea, bereziki unibertsitate eta goi-mailako ikerketarako erakundeetan. | II. Que de conformidad al artículo 3 de la Ley 3/2007 arriba referida, el Instituto Vasco Etxepare tiene como fines, entre otros: promover universalmente la enseñanza, el estudio y el uso del euskera; contribuir a dar a conocer y a difundir en el exterior la cultura vasca en cualquiera de sus lenguas oficiales, manifestaciones, soportes, medios y formas de expresión, promoviendo y apoyando en especial la oferta cultural creada en euskera; fomentar cuantas medidas y acciones contribuyan a la difusión y mejora de la calidad de sus actividades así como promover la investigación relativa a la cultura vasca, especialmente en las universidades y en organismos de investigación superior. |
| III. AESLA, irabazi asmorik gabeko elkarte bat dela, Espainiako Barne Ministeritzan, Elkarteen Erregistro | III. Que AESLA, es una asociación sin ánimo de lucro inscrita en la Sección Primera del Registro Nacional de |

| | |
|---|---|
| Nazionalaren lehen sekzioan inskribatuta dagoena, 46.997 zenbakiarekin, nazio barneko eremu eta eskuduntza duelarik. Berariazko helburu bezala du Espainian, hizkuntzalaritza aplikatuaren azterketa eta ikerketa sustatzea, suspertzea eta bultzatzea. | Asociaciones con el número 46.997, en el Ministerio de Interior del Gobierno de España, con ámbito y competencia estatal, que tiene como objetivo específico fomentar, estimular e impulsar en España el estudio e investigación de la lingüística aplicada. |
| IV. Bi alderdiek, beren eskuduntza arloen barnean, ikerketa eta zerbitzu trukearen arloan elkarlan estua sortzeko oinarriak ezarri nahi dituztela, horretarako ikerketa lerro komunak indartuz, bi entitateen artean ezagutza zientifiko eta/edo profesionala eta esperientziak trukatzea sustatuz eta truke hori lortzeko baliabide egokiak jarriz. Hori guztia hizkuntzalaritza aplikatuaren ezagueran aurrera egitearrren. | IV. Que ambas partes, en el marco de sus competencias, desean establecer las bases para emprender una estrecha colaboración con la intención de colaborar en el ámbito de la investigación y la prestación mutua de servicios, reforzando las líneas de investigación común, propiciando el intercambio de conocimientos y experiencias científicas y/o profesionales de ambas entidades, facilitando los medios adecuados para conseguir este intercambio, con el objeto de avanzar en el conocimiento de la lingüística aplicada. |
| V. Aurrekoaren ondorioz eta eraginez, aldeek lankidetza hitzarmen marko hau sinatzea erabaki dute, ondoko klausulen arabera arautuko dena. | V. En consecuencia de todo lo anterior y a tal efecto, las partes convienen en suscribir el presente convenio marco de colaboración que se regirá por las siguientes: |
| KLAUSULAK | CLÁUSULAS |
| LEHENA.- Hitzarmen honen helburua da Etxepare Euskal Institutuaren eta AESLAren artean lankidetzarako oinarriak ezartzea, bi aldeek dituzten helburuekin harremana duten ekintzak eta jarduerak elkarrekin garatu ahal izateko, bereziki, hizkuntzalaritza aplikatuaren ezaguerara bideratutakoak. | PRIMERA.- El presente convenio marco tiene por objeto establecer las bases de colaboración entre el Instituto Vasco Etxepare y AESLA para el desarrollo de cuantas acciones y actividades relacionadas con los fines que tienen encomendados ambas partes, puedan desarrollarse conjuntamente, y en especial, aquellas orientadas al conocimiento de la lingüística aplicada. |

| | |
|---|---|
| BIGARRENA.- Aurreko klausulak aipatzen dituen ekintzak gauzatzeko, bi aldeek elkarrekin lantzeko programak planifikatu eta garatuko dituzte.<br><br>Elkarlana eskatzen duten ekintzak garatzeko hitzarmen bereziak sinatuko dira, hitzarmen marko honi pixkanaka erantsiko zaizkio sinatzen diren heinean, eta horren bereizi ezinezko parte izango dira. | SEGUNDA.- Para el desarrollo de las actividades a que se refiere la cláusula anterior, ambas partes planificarán y ejecutarán programas de actuación conjunta.<br><br>El desarrollo de las actividades que requieran la puesta en marcha de la colaboración será objeto de convenios específicos, que se incorporarán al presente convenio marco progresivamente, a medida que se vayan formalizando y constituirán parte inseparable del mismo. |
| HIRUGARRENA.- Hitzarmen hau gauzatzean garatzen diren programak eta ekintzak martxan jartzeko, kontrolatzeko eta jarraitzeko, aldeek jarraipen batzorde mistoa sortu ahal izango dute, aldeetako bakoitzaren bi kideek osatuta eta Etxepare Euskal Institutuaren zuzendariak eta AESLAko buruak izendatuak. Batzorde hori gutxienez urtean behin bilduko litzateke eta ondoko funtzioak izango lituzke:<br><br>a) Hitzarmen marko honen babesean sinatuko diren hitzarmen bereziak planifikatu, ikuskatu eta ebaluatzea.<br>b) Jarraipen batzordearen funtzionamendu barne-arauak ezartzea, alde sinatzaileen araudiarekin eta estatutuekin bat.<br>c) Proposatutako helburuak lortzen lagunduko duten beste edozein funtzio. | TERCERA.- Para la puesta en marcha, el control y el seguimiento de los programas y acciones que se desarrollen en aplicación del presente convenio, las partes podrán crear una comisión mixta de seguimiento, integrada por dos miembros de cada una de las partes, que serán designado respectivamente por la Directora del Instituto Vasco Etxepare y por el Presidente de AESLA. Dicha comisión se reuniría, al menos una vez al año y tendría las siguientes fundaciones:<br><br>a) Planificación, supervisión y evaluación de los convenios específicos que se vayan a suscribir al amparo del presente convenio marco.<br>b) Establecimiento de las normas internas de funcionamiento de la comisión de seguimiento, en concordancia con la normativa y los estatutos de las partes firmantes.<br>c) Cualesquiera otras funciones conducentes al logro de los objetivos propuestos. |
| LAUGARRENA.- Alde sinatzaileek hitzarmen honen helburuarekin harremana duten nahi beste departamentu, erakunde, instituzio eta enpresaren laguntza izan ahal dute, pribatuak zein publikoak izan, bi aldeek interesgarria irizten badute hitzarmen honen helburua lortzeko. | CUARTA.- Las partes firmantes del convenio podrán contar con la colaboración de cuantos departamentos, organismos, instituciones y empresas, de carácter público o privado, estén relacionados con el objeto del presente convenio, y cuya contribución se considere por ambas partes de interés para el mismo. |

| | |
|---|---|
| BOSGARRENA.- Hitzarmen hau sinatzeak ez dakar ekarpen ekonomikorik. Hala ere, bertan aurreikusten diren ekintzetako bat gauzatzeko baliabide ekonomikoak beharko balira, aldeetako bakoitzak ekitaldi horretan duen aurrekontuaren menpe egongo lirateke. | QUINTA.- La suscripcion del presente convenio no implica la aportación de recursos económicos, sin embargo, para el caso en el que la realización de alguna de las actividades previstas en el mismo fuera necesaria la aportación de recursos económicos, éstas estarán supeditadas a las disponibilidades presupuestarias de cada una de las partes para cada ejercicio. |
| SEIGARRENA.- Hitzarmen honen ondorioz, Etxepare AESLAko erakunde kolaboratzailean bihurtzen da eta horrela isladatuko da AESLAko erakunde kolaboratzaileen erregistroan. Zerrenda hori publikoa eginteko Elkartearen weborrian argitaratuko da. Halaber, Etxepare Euskal Institutuak AESLAren egindako kolaborazioaren berri eman ahal izango du egokia dela irizten duen kasuetan. | SEXTA.- Como resultado del presente convenio, Etxepare se convierte en una institución colaboradora de AESLA y así quedará reflejado en el registro de instituciones colaboradoras de AESLA, cuyo listado se hará público en el espacio web de la Asociación. Asimismo, el Instituto Etxepare podrá hacer mención de la colaboración con AESLA, en los casos en que lo estime oportuno. |
| ZAZPIGARRENA.- Hiztarmen honek hiru urteko iraupena izango du sinatzen den datatik aurrera, eta automatikoki luzatu ahal izango da epealdi berdinengatik, aldeetako inork berariaz salatzen ez badu. Salaketa beste aldeari idatziz jakinarazi beharko zaio, hitzarmena amaitu baino hiru hilabete lehenago gutxienez. | SÉPTIMA.- El presente convenio tendrá una vigencia de tres años, a partir de la fecha de su firma, y será prorrogable automáticamente por periodos iguales, si no mediara denuncia expresa de las partes, que habrá de ser comunicada por escrito a la otra parte, con una antelación mínima de tres meses a la fecha prevista de finalización del convenio. |
| Hitzarmen hau bi aldeetako edozeinek bertan bereganatutako obligazioak ez betetzeagatik amaitu ahal izango da. | El presente convenio se extinguirá igualmente en caso de incumplimiento por alguna de las partes de las obligaciones contraídas en virtud de él. |
| Hizarmen hau, arrazoia edozein dela ere, bertan behera uzten bada, amaiera horrek garatzen ari diren ekintzetan ez du eraginik izango. Beraz, betiere garatzen ari diren programak eta ekintzak amaitu beharko dira, bai eta salatzen denean indarrean dauden konpromiso zehatzak ere. | La resolución anticipada del presente convenio, por cualquier causa, no afectará a las actividades en curso. En cualquier caso, por tanto, deb erán finalizar los programas y actividades que se estén desarrollando así como los compromisos específicos vigentes en el momento de la denuncia. |
| ZORTZIGARRENA.- Hitzartutakoa gauzatzeko, dokumentu hau sinatu dutenak fede onaren eta eraginkortasunaren printzipioen arabera arituko dira elkarlanean. | OCTAVA.-Las partes firmantes del presente documento colaborarán en todo momento de acuerdo a los principios de buena fe y de eficacia, para asegurar la correcta ejecución de lo |

| | |
|---|---|
| | pactado. |
| Eta adostasuna adierazteko, aldeek eragin bakarra duen hitzarmen marko honen bi ale sinatzen dituzte, euskaraz eta gaztelaniaz, adierazitako lekuan eta datan. | Y en prueba de conformidad las partes firman el presente convenio marco, en euskera y castellano, ppor duplicado y un solo efecto, en el lugar y fecha indicado. |
| INSTITUTO VASCO ETXEPARE<br><br>MARIA AITZPEA GOENAGA MENDIOLA | ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE LINGÜÍSTICA APLICADA (AESLA)<br><br>RICARDO MAIRAL USÓN |